

NETIQUETA

JARDUNBIDE EGOKIAK INTERNETEN



Zer da **NETIQUETA?**


Netiqueta Interneten adiskidetasunez eta errespetuz jokatzeko arauen multzoa da. Nahiz eta batzuetan aurrez aurre egingo genukeen bezala mundu digitalean errespetua mantentzea ahazten dugun, Netiquetak online interakzioetan egiten laguntzen digu, gaizki-ulertuak saihestuz eta ingurune positiboa sustatuz.



ERRESPETUZ nola komunikatu

Interneten, askotan testuarekin bakarrik komunikatzen gara. Ahots-tonurik eta gorputz-hizkuntzarik gabe, erraza da esaten duguna gaizki interpretatzea. Horregatik, ingurune segurua eta errespetuzkoa sortzeko, garrantzitsua da NETIQUETA jarraitzea:

- 1 Zaindu zure hizkuntza**
Azalpen positiboak egin, gainerako pertsonak iraintzea edo Interneten gorrotoa sortzea saihestuz. Ez erabili letra larririk beharrezkoa ez bada, eta berrikusi zure mezuaren asmoa argitaratu aurretik.
- 2 Errespetua eta tolerantzia**
Modu oldartsuan erantzun aurretik hausnartu, eta errespetuz adierazi beti zure ikuspuntua. Horrela, elkarrizketa osasungarriak eta positiboak sortzen lagunduko duzu.
- 3 Partekatu aurretik pentsatu**
Zerbait partekatu aurretik, ondorioetan pentsatu eta zurrumurruak ez direla edo informazio kaltegarriak zabalduko ez duzula ziurtatu.
- 4 Salaketa egokiak**
SPAM salaketa bidebageak saihestu, iruzkin zuzenak egiten dituztenei kalterik ez egiteko eta aukera hori erabili justifikatuta dagoenean.
- 5 Hartu zure denbora eta gainerakoena errespetatu**
Ez dago arazorik laguntasun-eskaerak edo taldeentzako gonbidapenak alde batera uzteagatik, ezta zurekin egiten dutenean gaizki hartzeko ere. Zurekin egiten badute, ez eskatu azalpenik.
- 6 Beste pertsonen pribatutasuna errespetatu**
Ez partekatu informazio pertsonala baimenik gabe. Zerbait argitaratu edo etiketatu aurretik, beti galdetu.
- 7 Zure pribatutasuna zaindu**
Zure kontaktuei jakinarazi zure pribatutasuna eta intimitatea nola erabili nahi duzun. Gaizki sentiarazten zaituen edo bizikidetzara arauak urratzen dituen argitalpen bat ikusten baduzu, administratzaileei jakinarazi.



Netiketa jarraitu ezazu eta Interneten modu positiboan eta inklusiboan komunikatu zaitetz.